

# noaua

**Ingemarreko langileek  
borrokan jarraituko dute**

**45 langabetu  
gutxiagorekin amaitu  
zen 2016. urtea**

**Igandean, Irisasi BTT  
Hotzak Akabatzen  
lasterketa**



**Aginaga, Eiza gabe**

**Ehun bat urtez zabalik egon ondoren,  
abendua amaieran itxi zuten saltokia**

# LASER DIODO IRAUNKORRA

## LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzear nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:  
(prezioak sesio bakoitzeko)

### EMAKUMEETAN:

Hanka osoak+ oinbularrak+ behatzak 149€ /  
Hanka erdiak+oinbularrak+behatzak 99€  
Izter erdiak 99€ Besoak + hatzak 79€ / Besurreak + hatzak 69€  
Kokotsa + ezpaina 39€ / Besapeak 39€  
Besapeak + Ingleak (bikini) 79€ / Besapeak + Ingleak (brasildarrak)  
89€ Besapeak + Ingleak (osoa) 99€

### GIZONETAN:

Besapeak 39€ / Ingleak 49€ / Begitartea 19€  
Sorbalda + besaburuak 129€  
Sabelaldea + toraxa 153€  
Hanka osoak 194€ / Hanka erdiak 122€  
Besoak 99€ / Besurreak 89€  
Ipurmasailak 79€



Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2  
ETXEBIZITZAK!



12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
Agerreazpi<sub>n</sub>

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E.:contacto@viviendasslanin.com

943 46 88 60

www.viviendasslanin.com



## Albiste iruditzen



Usurbilgo Udaletik aldizkari honi berri eman diotenez, "Andatza mendian, 3,6 Ha landatuko dira mendi tontorra

eta Ziortza arteko eremuan. Iaz moztutako Pinus Radiata basoa birlandatuko da bertako haritz, ametz eta lizarrekin.

Guztira 6.500 zuhaitz baino gehiago landatuko dira eta 9.987 euroko aurrekontua du".

## Laburrean

### Amador Granados omenduko dute igandean

2016ko Paralinpiar Jokoetan, Amador Granadosek brontzezko domina irabazi zuen. Igande honetan, omenaldia egingo diote Irisasi BTT-k eta Usurbilgo Udalak, eguerdiko 12:30ak aldera frontoian.

### KoopFabrika, ekintzailatza sozialerako programa

Programan parte hartzea doakoa da baina aldeztu behar da izena. Otsailaren 1ean hasiko da ikastaroa. Informazio gehiago: Andoni Egia 688 84 95 40 / [koopfabrika.eus](http://koopfabrika.eus)

### Igandean, Herritzarturen mahaia frontoi inguruan

Herritzarturen manifestua sinatzeko aukera izango da igande honetan. Eguerdian, frontoi inguruan ipiniko duten mahaia gerturatuta eman dezakezue zuen atxikimendua.

# noaqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // [elkartea@noaqua.eus](mailto:elkartea@noaqua.eus) // [www.noaqua.eus](http://www.noaqua.eus)

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**

Idoia Torregarai.

**Aldizkari koordinatzailea:**

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

[publizitatea@noaqua.eus](mailto:publizitatea@noaqua.eus)

**Diseinu berria:** Erroitz S. L

**Erredakzio kontseilua,**

[erredakzioa@noaqua.eus](mailto:erredakzioa@noaqua.eus):

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Aritz Gorriti

## Lekukoen papera

Urtezarretik gehiago du aurtengoak ere, kontatzen noanak zoritxarrez ez baitu ezer berrik. Eta gehiegi egunerokotik. Urteberriari ongi etorria emateko urtezarhar gaua. Goizaldea hobekiago esanda. Parrandatik bueltan, hotz galanta kalean eta jai giroan murgilduak egon ostean lotarako bidean goaz. Ezusteko bidean.

Bat batean, espero gabe, jendarteko eremu anitzetan presenteei dagoen errealtate latz eta gordinarekin tupust egin genuen. Neska bat hurbildu zaigu, taxi zerbitzuaren telefono zenbaki baten eske. Hasiera batean, lasai antzean sumatu dugu. Ez zaigu ezaguna denik iruditzen. Berehala berretsiko digu berak ez dela herrian bertan bizi. Sakelako telefonoa atera dugu, telefono zenbakiak bilatzeari ekin eta horretan gabiltzala heldu da mutil bat. Hau ere guretzat ezegaguna. Bere onetik irtenda. Segituan hasi zaio

neskari modu erasokorrean hitz egiten. Hortik ondorioztatzen dugu, badela nolabaiteko harremanen bat haien artean. Eta berehala larrituko gaituen lehen keinua egin du.

Neska taxi zerbitzuko telefono zenbakia apuntatzekotan da mugikorrean. Mutila zertan ari den aurpegiatzen, imajinatu bere ahots tonua. Beregandik aldentzeko asmotan zela ohartuko zen agian, eta segurtasun berme gisa mugikorra “bahitu” zion. Inkomunikatuta utzi zuen neska, leku ezezagun batean, ezezagunez inguratua. Keinuren bat ere eskaini zigun mutilak, egoera haren erdian harrapatu gintuenoi.

Hortik aurrera egoera gogortzen joan zen. Neska, naturala den moduan bere mugikorraren eske hasi zitzaion. Oldarraldia berehalakoa izan zen, gainezka egitear den eltzearen antzera lehertu zen mutila. Oihuak biraoekin nahastu ziren, biraoak listu jaurtiketaren batekin. Kolperen bat eman zion parean zuen fa-

rolari. Ordurako, itxuraz bikotearen beste bi lagun irten ziren ondoan zuten tabernatik.

Bere onetik eta bere buruaren kontrola guztiz galdua zuen mutila lasaitzen ahal egindu ziren, hitz egiteko prestasuna adierazi zioten, taberna barrura itzultzeko gonbidatu. Berak ordea birao artean, neskari beti berdina egiten ziola oihuka, beti lagunekin joaten zela leporatzen. Itxuraz bazirudien ez zuela muturraren aurrean ikusi ere egin nahi, baina ez zion mugikorra itzultzen. Neskak argi zuen; bizitzen ari zen egoera ikusita, ezezaguna zitzaion ingurunetik hanka egin nahi zuen etxera. Eta gu artean, taxi zerbitzuei deika, orduarik konplexuenean gainera, askorentzat etxera bueltatzeko garraio bide hau baliatzen ari ziren goizaldeko ordu txikiak baitziren. Urduri, une batzuetan egoera larritzen ari zela ikusita.

Zorionez, benetan luzea egin zitzaigun minutu gutxi haietako tartea berehala eten zuen telefonoz bestalde

erantzun zigun taxi gidariak. Eskerrak gertatzen ari zenaz jabetu ere egin gabe berehala agertu zen. Jakin badakigu “onik” (bizitakoa eta gero, kakotsa artean noski) itzuli zela etxera. Mutila tabernara itzuli zen.

Ez dakigu besterik. Ez geroztik zer gertatu den, ezta aurretik zer bizitzen ari ziren. Baina gau hartakoa ez zen, desadostasun edo eztabaida soil bat. Bizitakoak utzitako gorputzaldi txarraren ostean, ezin burutik kendu gertaturikoa. Egoki jokatu ote genuen? Askari da egin genuena? Bat-batean halako egoera baten lekuko garen, egoki jokatzeko prest al gaude? Nolakoa behar du izan lekukoon papera eta jokabidea? Argi dago beharrezkoak diren salaketetatik haratago badugula zer ikasirik. Gizonezkooi dagokionez gainera, egunerokoak, eguneroko izateari utzi diezaion badugula nahiko lan, bestelako gizentasun eredu bat eraikitzen.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Garazi Lizaso Manterola

## Ugartondoko urbanizazio proiektua

Ursurbilgo Udalak Ugartondoko urbanizazio proiektua eta eremu honi dagokion Barne Erreformako Plan Bereziaren 1. Aldaketa behin betiko onartu ditu. Ugartondo eremuan aurreikusten den etxebizitza egitasmo berria, bistan denez, aurrerabidean da. Gogoan izan, Ursurbilgo Gaztetxea kokatua dagoen eremuan eraikiko direla bizilekuok.



Etxebizitza egitasmo berria aurrerabidean da.

### “Usurbil 0.0” ekarpen bilketa

Herritarrekin lan saioa antolatu da ostegun honetarako, urtarrilak 26, 18:00-20:00 artean Potxoenean. “Bertan Usurbil 0.0 hondakinen kudeaketa programari eginiko ekarpen, iritzi eta hobekuntzak jaso nahiko lituzke Udalak”. Web orrian, usurbil.eus atarian, “Usurbil 0.0” estekan klikatuta eskura dezakezue egitasmoari loturiko dokumentua.

# “Ingemarreko langileok azken mugaraino eramango dugu gure borroka”

Akordio bat erdietsi eta akordio hori gauzatze-ko urratsak emateko-tan ziren honetan, hartzeko-dunen lehiaketa aurkeztu dute Ingemarrentzat. Bai Usurbilgo lantegiarentzat baita talde bereko beste bi plantentzat ere; Ingemarga S.A. eta Corporacion Ingemar. Nobedade garrantzitsu honen harira, Usurbilgo lantegiko lan batzordeko kideek agerraldia egin zuten hilaren 19an, ELA sindikatuak Donostian duen egoitzan.

Enpresak etorkizuna baduela diote, lantegiaren errentagarritasuna defendatzen dute. “Ingemar S.A. Taldeak Usurbilgo lantegian du egoitza soziala, Usurbilen ekoitzi baita hainbat urtetatik hona balio erantsi handieneko produktua, lantegi hori errentagarria da argi eta garbi, falta den gauza bakarra horretan sinestea da, eta abiarazteko adinako kapitala ekar-tzea”, adierazi dute.

## Azaroko akordioa, ezerezean

Gogora dezagun, ekainaz geroztik itxieraren aurka bost hilabeteko greba mugagabea egin zutela langileek azarora arte. Akordio batekin amaitu zuten greba hura. Akordio hartan, besteak beste, “akziodunek kapital-gehikuntza onetsi zuten, baina azkenean ez da gauzatu. Hasieran milioi bat euroko kapital-gehikuntza



Usurbilgo lantegiko lan batzordeko kideek agerraldia egin zuten urtarrila-ren 19an, ELA sindikatuak Donostian duen egoitzan.

### LANGILEEN USTEZ

**“Egoera horren errudunak dira Ingemar taldeko administratzaile bakarra, Jose Longarela, kudeaketa txarra egin duelako; eta akziodunak, kapital-gehikuntza onetsi arren gauzatu ez dutelako”**

egin behar zen, bideragarritasun-plana abiarazteko, eta gero beste hiru milioi euroko ekarpen bat plana gauzatze-ko. Borondatezko konkurtso horretarako eskaria Lugon aurkeztu da, 26/2017 Ohiko Konkurtso Prozeduraren bidez, zeren INGEMARGA, S.A. ren egoitza Lugon dago, eta enpresa filial hori da pasiorik handiena duena”.

## Laguntza eskaera erakundeei

Egoera honen erantzuleek, langileek esanetan errudunek, izen abizenak dituzte. “Ingemar S.A.-ko langileen ustez egoera horren errudunak dira, batetik, Ingemar taldeko administratzaile bakarra, Jose Longarela, kudeaketa txarra egin duelako, eta ekarpena bermatu ez duelako; eta bestetik, akziodunak, kapital-gehikuntza onetsi arren gauzatu ez dutelako”.

Langileok berri eman dute-nez, hilaren 16an bildu ziren lehen aldiz konkurtso-administratzailearekin eta mezu argia helarazi zioten. “Enpresa Batzordeak azaldu zion, lehenik eta behin langileen kezka geroaz, eta bigarren, konkurtsoa

jardunean jarraitzeko modukoa izateko eskaria; hau da, ea taldeko Zuzendaritzak hitzarmen bat aurkezten duen, inbertsiogile bati sarbidea emateko, eta ea konpromisoa hartzen duen, lantegia jardunean iraunarazteko, azaroan Zuzendaritzarekin lorturiko akordioak betetz”, adierazi zuten aurreko asteko agerraldian.

## Inbertsiogile bila

Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Usurbilgo Udalari orain arteko bidetik segitzea galdegin diete, “orain arte jokatu duten bezala jokatzeko jarraitzeko, eta hortaz inbertsiogile bat erakartzeko, Ingemar S.A. lantegiaren bideragarritasuna ziurtatze aldera; hala jaso baitzen Taldeko Zuzendaritzaren eta langile-ordezkarien arteko akordioan. Horren menpean daude 51 langileren lana eta 26 langileren aurre-erretiroak”.

## 75 familien geroa dago jokoan

Guztira 75 familien etorkizuna dago kolokan. Argi utzi dute langileek gaurko agerraldian; ez dute etsiko. “Langileok azken mugaraino eramango dugu gure borroka”, adierazi zuten he-dabideen aurrean. Enpresa ixteko edozein ahaleginik bada, langileak itxiera horren aurka izango dituela diote.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.eus

Josue

Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

talak  
36-60  
INQUIETUD  
JANTZI-DENDA



Nagusia 49, LASARTE-ORIA

# Mugikortasun plana: lehen jarduerak herritarrek zehaztuko dituzte

Usurbilgo Udalak ‘Kale Irekiak’ mugikortasun plana jarri zuen mar txan duela hilabete batzuk. Irailaren 28tik azaroaren 2ra arte luzatu zen prozesu partehartzaile emankor baten ondoren, jasotako informazio guztia antolatu eta ondorioak publiko egingo ditu datozen hilabeteetan. “Bertatik jasotako hainbat ekimen burutzeko, Usurbilgo Udalak 40.000 euroko diru partida gorde du, eta herritarrak izango dira diru horrekin zein ekintza egingo diren erabakiko dutenak”.

## 207 haurren parte hartzea

Kaleak erabilera anitz ditu. Eta haurren beharrak eta premiak kontuan hartzeko ahalegin berezia egin da. “Helduei zuzendutako saioez gain, Haurren Astea gauzatu dugu Udarregi Ikastolarekin eta Aginagako Eskola Txikiarekin elkarlanean”, udal iturriek aditzera eman digutenez. “Saio horietan 207 haurrek hartu dute parte, eta oso proposamen interesgarriak egin dituzte”. Bestalde, emakumei zuzendutako saio berezi bi eraman dira aurrera; lan saioa, bata, eta kale ibilaldi-ekintza, bestea.

## Kaxkoan, eta auzoetan

Prozesuan zehar, “ahalegin berezia egin da Kaxkoko auzotarrak ez ezik, gainontzeko auzoetako ere parte hartzeko.



Irailaren 28tik azaroaren 2ra arte luzatu zen prozesu partehartzaile emankor baten ondoren, “jasotako informazio guztia antolatu eta ondorioak publiko egingo ditu Udalak datozen hilabeteetan”.

## USURBILGO UDALA

**“Helduei zuzendutako saioez gain, Haurren Astea gauzatu dugu Udarregi Ikastolarekin eta Aginagako Eskola Txikiarekin elkarlanean”**

Hori erraztu asmoz, lan saioak Usurbilgo erdigunean, Zubietan eta Aginagan burutu dira; eta, “aipatzekoa da bertaraturako 67 herritarren lanerako prestutasuna”.

## 40.000 euro, ekintza planean jasotako lehenengo jardueretarako

Hurrengo hilabeteetan diseinu lana bukatuko da, eta, orduan, parte hartzeko azken saioa egingo da, nahiz eta oraindik ez den zehaztu eguna. “Saio horretan, herritarrei Plan zuzentzailea eta honen Ekintza plana aurkeztuko zaie. Une horretatik aurrera, Udalak aktuzioak egiteari ekingo dio, beti ere udal

aurrekontuek ahalbidetzen duten neurrian eta parte hartzeko saioetan ondorioztatutako lehentasunak errespetatuz”.

Hasteko, 2017ko udal-aurrekontuan, 40.000 euroko aurrekontu-sail bat gordeko da ekintza planean jasotako lehenengo jarduerak gauzatzeko.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

20170  
USURBIL

# Etkez etxeko inkesta, Zubietako energia planaren abiapuntua

**A**rgindarra beste behin zenbat garestitu den guztion ahotan dabilen egunotan, energia plan propioa garatzen hastera doa Zubietako. Etorkizunean Zubietan bertan energia berriztagarriak sortzeko dauden aukeren gaineko azterketa bideratuko dute abiatu berri dugun urte honetan zehar.

Zubietarren energia kontsumoa eta dituzten energia beharrak asetzeko zer baliabide beharko lirartekeen aztertu nahi dute. Prozesu hau Zubietako Herri Batzarrek eta Lanbide Eskolak gidatuko duten arren, zubietarrak bidelagun izatea nahi dute, aurreko astean Kaxkapen egin zuten aurkezpen saioan nabarmendu zuten bezala. Besteak beste, ekimenak edo formazioa jasotzeko aukera izango dute.

## Bolondresen izena emateko garaia dute

Plan honek bi fase nagusi izango ditu; lehenbizi energia kontsumoaren inguruko azterketa egin nahi da Zubietako Kaxkoko 42 etxebizitzetan. Bizilekuotan bezala, baita Zubietako erdiguneko jardueren ekonomikoetan edota bertako hezkuntza zentroetan ere.



Zubietarren energia kontsumoa eta dituzten energia beharrak asetzeko zer baliabide beharko lirartekeen aztertu nahi dute.

### PAUSOZ PAUSO

**Azterketa sakon batekin, ekimen eraginkorrek proposatzeko aukera izango dute. Horretarako, ekintza plan bat garatuko dute**

## Etxe jabeen baimenak behar dira

Ahalik eta etxe tipologia anitzenera hedatu nahi dute azterlan honen eremua. Horretarako ordea, etxe jabeen baimena behar da. Bolondresen izen emateko aukera izango dute

egunotan, Zubietako Herri Batzarren bidez. Izen emate-rakoan komenigarria litzateke proiektu honen sustatzaileen esanetan, izen abizenak eta telefono zenbakia adieraztearekin batera, etxebizitza mota eta bizilekuan zenbat kide bizi diren zehaztea.

## Elkarlanean

Ettxera azterketa egitera joaten direnerako bestalde, fakturak eskura izatea gomendatzen dute. Fakturak aztertu, etxetresnak ikusi edota etxearren egoera aztertuko dute. Kontsumoen gaineko argibideak jasotzeko aukera ere izango da, Lanbide Eskolako eta Herri Batzarreko ordezkariak baten egingo dituen bisita hauetan. Azterketa sakon honekin, gero ekintzak burutzean eraginkorrek izatea bilatzen dute. Ekintza plan bat garatuko dute.

## Azterketaren faseak

### Lehen fasea, energia datuen bilketa:

Bat: 42 etxebizitzetan inkesta energetikoa burutu (ordubete inguru).

Bi: Jarduera ekonomikoetan eta hezkuntza zentroetan energiari buruzko datu bilketa eta azterketa.

### Bigarren fasea, energia sorkuntzaren azterketa:

1-Errekurtso naturalak: eguzkia, ura, haizea.  
2-Egurra zerrategian.

### Epeak:

-Otsaila-maiatza: energia kontsumoaren gaineko azterketa.

-Maiatza-urria: energia sorkuntzaren gaineko azterketa.  
-Azaroa-abendua: ekintza plana.

■ Azterketa bideratzen ari direnak: Lanbide Eskola, Zubietako Herri Batzarrekin elkarlanean.

**Parti**  
Patri 2022  
latetxea

bazkariak EGUNERO  
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

ARRANDEGIA  
**PELLO**

PUNTAPAX 7  
943 36 21 64  
USURBIL

Okindegia-Gozotegia

**LABE-GOXO**

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**

azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK  
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665  
XABIER  
**Usurbil**

# 'Bizi Kalea' gastronomia eta musika jaialdian, Huntza, The Hastelen's eta Zaparra

Ingande eguerditik larunbat iluntzera aldatu dute datoren hitzordua. Txotx garai betean egonik, sagardotegiko jan edana dastatzeko modua eskainiko digute. Eta musika izango da oraingoan protagonista nagusia. Herriko bi talde gonbidatu dituzte; The Hastelen's eta Zaparra. Eta haiekin, azken hilabeteotan arrakasta itzela izaten ari den Huntza taldea dator Usurbila. Menu erakargarri honekin osatu dute Hurbilago Elkarteko tabernariak otsailaren 4rako Bizi Kalea gastronomia guneko eskaintza. Adi sarreren salmentari:

## Otsailak 4, larunbata

■ 19:00-21:00 Bizi Kalea. Sagardotegiko pintxoak 2 eurotan (bakailu tortila, txorizoa eta saiheskia), edaria euro batean.  
 ■ 21:00-21:30 Hurbilago Elkarteko saltokietan xahutzeko 150 euroko erosketa balearen eta tabernarien oparien zozketa.

## Kontzertuak

■ 20:00 The Hastelehen's.  
 ■ 22:30 Huntza. Sarreren salmenta: aurrez 5 eurotan salgai Usurbilgo tabernetan, Hernaniko Garinen, Lasarte-Oriako Ilargin, Orioko Kolon Txikin eta Zarauzko Arranon. Egunean bertan 6 eurotan salgai.  
 ■ 00:00 Zaparra.

Antolatzailea: Hurbilago Elkartea. Babesleak: Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritza.



Txotx garai betean egonik, Hurbilago elkartekoek sagardotegiko jan-edana dastatzeko aukera eskainiko digute. 19:00etatik 21:00etara, pintxoak eta edariak. Jai-giroa luzatzeko, The Hastelen's, Huntza eta Zaparra taldeen kontzertua frontoian. Sarrerak herriko tabernetan, 5 eurotan salgai.



The Hastelen's taldearekin hasiko da kontzertua, gaueko 20:00etan.



Zaparra taldea gauerdian arituko da. Huntzaren erromeriaren ondoren, rock and rolla.

**Uraltz, s.l.**  
 Igeltseritza  
 Orokorra

693 059 392  
 uraltz@uraltz.com USURBIL

**BORDATXO**  
 taberna

Pintxo Bereziak  
 943 37 10 42  
 Zubiaurrenea 5

**ELORZA**  
 OBRAK ETA  
 ERREFORMAK S.L.

661 804 688  
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



# Larunbat honetan, 'Ate Irekiak' Udarregi ikastolan

**D**atorren astelehenean zabalduko da matrikulazio garaia. Ate Irekien eguna ordea, larunbat honetan egingo dute. Era honetan, ikastolaren beraren hezkuntza eredua ez ezik, ikastolak dituen baliabideak ezagutzeko aukera izango dute gurasoek. Matrikulazio garaian bezperan, Udarregiren eskaintza ezagutzeko aukera egokia.

Atsedean eguna izanik ere, larunbat honetan zabalik izango da Udarregi ikastola. Goizeko 10:30etik 13:00era, interesa duen edonork ikastolari buruzko xehetasunak jasotzeko aukera izango du. "Ikastolako atea irekiko ditugu ikastola ezagutzera etorri nahi duten familia guztientzat", Udarregitik aditzera eman dute.

## Gelak eta instalazioak ezagutzeko aukera aparta

Hezkuntza proiektua azalduko zaie, eta lan metodologiari buruzko xehetasunak eskainiko zaizkie larunbat honetan ikastolara hurbiltzen direnei.

Hala nola, ikastolak eguneroko jardunean eskaintzen dituen zerbitzuen berri eman go da. "Gelak eta instalazioak ezagutzeko aukera izango du-



Larunbat honetan, 10:30etik 13:00era Ate Irekiak jardunaldia Udarregi ikastolan. Eraikin berriaren jangelatik abiatuko dira bisita-gidatuak. Argazkia: Udarregi.

zue".

Udarregira hurbiltzen diren gurasoek Mariaje Imaz ikastolako zuzendaria eta Beñat Larrañaga ikasketa-burua izango dituzte zain. Nekane Alduntzin eta Eli Goikoetxea HH zein LHko koordinatzaileek ere larunbat honetako Ate Irekiak

jardunaldian hartuko dute parte.

## Eraikin berriko jangelan, Alperro-Buru 5 helbidean

Udarregi ikastolako eraikin berriko jangelan hasiko da bisita gidatua: Alperro-Buru 5 helbidean.

## Bihurri ludotekako bazkidetza

### ordaintzeko garaia da

Bihurri ludotekako bazkideek kuota bat ordaindu behar izaten dute. 2017. urteari dagokiona otsailaren 28a baino lehen ordaindu behar dute.

Bazkide berriek 30 euroko ingresoa egin behar dute. Dagoeneko bazkide direnek, aldiz, 10 euro. Bi kasuetan, dirua kontu zenbaki honetan sartu behar dute:

Kutxabank S76-2095-5069-06-1063903578

"Zalantzak argitzeko edo proposamenak egiteko, ludotekako tabloira jo dezakezue eta iradokizunak bertan egin", Bihurri ludotekatik aditzera eman digutenez.

## Ludoteka utzi dutenek, giltza itzuli behar dute

Ludoteka utzi behar dutenentzat ere beste ohar garrantzitsu bat: "Mesedez, ludoteka utzi egingo duzuenak, itzuli giltza".

## Otsailaren 9an, Korrika

### Batzordearen bilera

Otsailaren 9an 19:30etan Etureta AEK euskaltegian. Deialdia norbanako nahiz eragileei zuzendua dago. Helburua, euskararen aldeko lasterketa heldu aurretik herriz herri antolatuko den Korrika Kulturalean parte hartu eta horretarako ekimenak, ideiak proposatzeko aukera egongo da.

### Apirilaren 4an, Korrika gurean

Gogoan izan, 20. Korrika apirilaren 4an igaroko dela Usurbildik, gaueko 23:39 aldean.

## Arropa eta bestelakoak, Euskaltegian salgai

Materiala salgai duzue euskaltegian. 12 euroren truke Korrika Laguntzaile izateko aukera dago baita.

# KzGunea, otsaileko eskaintza

Urtarrilaren 31ra arte goizez zabalduko dute, 09:00-13:00 artean. Otsailaren 1etik aurrera, arratsaldean, 16:00-20:00 artean. Honatx hurrengo asteotarako iragarri dituzten ikastaroak:

- Urtarrilak 30-31, 09:00-11:00

"Eusko Jaurlaritza zure mugikorrean".

- Otsailak 1-10, 16:00-18:00: "Argazki ukitua GIMP erabiliz".

- Otsailak 13-21, 16:00-18:00: "Smartphoneak eta tabletak. Lortu zure Android gailuaren etekin handiena".

- Otsailak 22-28, 16:00-18:00: "Zure lehen urratsak Informatika munduan".

Informazio gehiagorako:  
943 023 684  
tutor.usurbil@kzgunea.net  
Kale Nagusia, 37

# 45 langabetu gutxiagorekin amaitu zen 2016. urtea

**E**statuko Enplegu Zerbitzua hilero plazaratzen joan den datuen arabera, 2016an nabarmen jaitsi zen langabetu kopurua Usurbilen. Iazko lehen hiruhilekoan 301etik 319ra igo zen langabetu kopurua, gerora ordea beheranzko bideari heldu zion, urte amaieran 45 langabetu gutxiago zenbatzeraino. 2009az geroztik ez zen halako kopururik erregistratu.

## Beherakada handiena, emakumeen kopuruan

Aldaketa handirik izan ez duena, gizon eta emakumezko langabetu kopuruan dagoen aldea da. Urtea hasi bezala amaitu baitzen; emakumezko langabetu gehiagorekin, nahiz beherakada handiena ere lanik gabeko emakumezkoen kopuruan izan den. Urtea amaitzerako 119 gizonetzko eta 137 emakumezko zeuden lanik gabe udalerrri honetan. Urtarrilean baino 29 emakumezko eta 16 gizonetzko langabetu gutxiago zenbatu zituen Estatuko



Datuok Estatuko Enplegu Zerbitzutik hartu ditugu.

Enplegu Zerbitzuak 2016ko abenduan.

## Langabeziak behera, baita eskualdean ere

Gorabeheratsua izan da langabeziak Buruntzaldean eta Gipuzkoan izan duen bilakaera, nahiz bi eremuotan ere beherakada argia egon den 2016an. 12 hilabeteko tartean, 658 langabetu gutxiago zenbatu ziren bailaran, eta 5.646 langabetu gutxiago Gipuzkoan.

## Aldi baterako kontratazioa nagusi

Kontratazio datuei erreparatuta, alderantzizkoa gertatzen da. Hemen ere gizonetzko eta emakumezkoen arteko aldea nabaria da, emakumezkoak baino gizonetzko gehiago kontratatzen direlako. Bi hilabete salbuetsita, 2016ak ere joera hau berretsi du. Baita beste datu bat ere; ia kontratu guztiak aldi baterako erregistratu direla. Honatx 2016an zehar, Estatuko Enplegu Zerbitzua hilero kaleratzen joan den langabezia datuen bilakaera:

## Langabeziaren bilakaera 2016an

Hilabeteak	Usurbil	Buruntzaldea	Gipuzkoa
Urtarrila	301	4.341	42.611
Otsaila	302	4.277	41.966
Martxoa	317	4.259	41.766
Apirila	319	4.268	41.510
Maiatza	313	4.143	40.332
Ekaina	307	3.984	39.075
Uztaila	285	3.865	24.192
Abuztua	295	3.950	38.780
Iraila	288	3.971	39.211
Urria	267	3.831	38.318
Azaroa	258	3.745	37.326
Abendua	256	3.683	36.965

## Usurbilgo langabezia-tasa, 2016an Usurbilen

Hilabeteak	Guztira	Gizonetzkoak	Emakumezkoak
Urtarrila	301	135	166
Otsaila	302	133	169
Martxoa	317	144	173
Apirila	319	152	167
Maiatza	313	152	161
Ekaina	307	143	164
Uztaila	285	125	160
Abuztua	295	131	164
Iraila	288	131	157
Urria	267	118	149
Azaroa	258	118	140
Abendua	256	119	137

## Langileen kontratazioa, 2016an Usurbilen

Hilabeteak	Guztira	Aldi baterako kontratatuak	Gizonetzko kontratatuak	Emakumezko kontratatuak
Urtarrila	340	320	172	168
Otsaila	341	324	198	143
Martxoa	334	317	198	136
Apirila	328	315	172	156
Maiatza	377	349	198	179
Ekaina	438	416	261	177
Uztaila	538	525	280	258
Abuztua	388	377	240	148
Iraila	451	429	228	223
Urria	302	284	142	160
Azaroa	379	365	205	174
Abendua	250	233	118	132

# Donostiarrei aurre hartu zieten

**H**iriburuko ospakizunen aurretik, danborrada saioak ospatu zituzten herriko ikastetxeek. Ondoko irudietan, Udarregi Ikastolako HH eta LH zikloetako ikasle eta irakasleek, eta Zubietako Eskola Txikikoek eskainitako emanaldiak.

## Hurrengo ospakizunak, Inauteriak

Otsailaren 25ean ospatuko dugu Inauteri Festa. Gogoan izan, Ingurumena dela moztrotzeko proposaturiko gaia. Bezperan, Udarregi Ikastolako ikasleek eskainiko duten emanaldia ere gai honi loturikoa izango da; "Zaborra ere gurekin dantzan".

## Ate irekien eguna Udarregi Ikastolan

2017-2018 ikasturtean matrikulatzeko epea irekitzeaz da. Datorren astelehenean (urtarrilak 30) zabalduko da izen ematea. Garai honi begira, ate irekien eguna antolatu du Udarregi Ikastolak larunbat honetarako, urtarrilak 28, 10:30-13:00 artean. Jangela berrian finkatu dute biltzeko hitzordua.

## Informazio gehiago:

udarregi.eus  
943 361 216



Goiko argazkian, Zubietako Eskola Txikiko haurrak. Azpian, Udarregi ikastolako ikasleak Agerialdeko patioan jotzen.

# Txokoaldeko tren geltokia biziberritzeko ekimena

Txokoaldeko tren geltokia zena jarduera soziokulturale-tara bideratu nahi du Udalak. Horretarako, Eusko Trenbide Sarearekin batera elkarlanerako hitzarmena sinatu du, eraikinaren erabileraren lagapena gauzatzeko. Kultur ekimen bat garatu nahi duenarentzat, aukera egokia izan daiteke.

## Bete beharreko baldintzak

Norbanakoek zein taldeek aurkez dezakete proposamena. Bestalde, proposamen bat baino gehiago aurkez daitezke. Lanak euskarri digitallean eta paperean aurkeztu behar dira. Euskarri digitallean: CD edo pendrive batean. Lanak euskaraz idatzita egon behar dute.

## Egitasmoak aurkezteko epea: otsailak 10

Proposamenak aurkezteko azken eguna 2017ko otsailaren 10a izango da.

## Iraupena

Bi urterako utziko da lokala. Epe hau, bi aldean adostasuna tarteko, beste bi urtez luza daiteke.

## Udaletzeko Kultura Sailean

Proposamenak Usurbilgo Udaleko erregistroan aurkeztu edo postaz bidaliko dira. Egitasmoari buruzko xehetasun gehiago ere, bertan jaso daitezke.

Usurbilgo Udala  
Kultura Saila  
Joxe Martin Sagardia Plaza z/g  
20170 Usurbil

# “Sektoreak horrelako zerbait behar zuen”

UNAI AGIRRE ‘EUSKAL SAGARDOA’ JATORRI IZENENKO ARDURADUNA ELKARRIZKETATU DUGU

**E**uskal Sagardoa jatorri izenaren aurkezpen ekitaldian, Unai Agirrek datu zehatz bat eman zuen: datozen hamabost urteetan 250 eta 300 hektarea artean handitu beharko da sagasti kopurua, izendapenaren baitan dauden sagardotegi guztiek bertako sagarrarekin ekoiztu ahal izateko %100ean. “Mugimendu handiak ari dira ematen orain. Dirulaguntzak aktibatu egin dira eta jendea sagastia jartzen hasi da. Ekimen honek lehen sektorea jarri du martxan”, telefono bidezko elkarrizketan aitortu digunez.



Urtarrilaren 9an, Euskal Sagardoa jatorri-deitura berriaren irudia aurkeztu zuten.

**NOAUA! Euskal Sagardoa-ri esker, jatorri izendapenen multzoan sartu da sagardogintza sektorea.**

**Unai Agirre.** Aspalditik ari ginen honen atzetik. Eta garrantzia handia du urrats honek. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako sagardo zein sagar elkarte guztiek onartzea lortu dugulako. Horrek ez du esan nahi sagardotegi guztiak sartu direnik. Baina elkarte guztiak bai, batu egin dira. Elkarlanean aurkeztu dugu eta hori ere azpimarratzekoa dela uste dut, sektoreak horrelako zerbait behar zuelako.

**N. Jatorri izendapenak eragin zuzena izango du sagardoaren ekoizpenean, ezta?**

**U. A.** Konpromiso sendo bat hartu dute izendapenean sartu diren sagardotegiek. Urte batzuen buruan, %100ean jatorri izendapenaren baitan ekoizteko konpromisoa hartu dute. Orain portzentaje batekin hasi daitezke, kontrola kupelaka doalako. Baina 10-15 urteko epean, sagardo guztia jatorri izendapenaren arabera ekoiztera konprometitu dira.

Urrutiko epea dirudi, baina sagastia sagarra produzitzen

## UNAI AGIRRE

**“Konpromiso sendo bat hartu dute Euskal Sagardoa izendapenean sartu diren sagardotegiek. Orain portzentaje batekin hasi daitezke, kontrola kupelaka doalako. Baina 10-15 urteko epean, sagardo guztia jatorri izendapenaren arabera ekoiztera konprometitu dira”**

hasteko ia 10 urteko epea behar du.

## Kalitatezko sagarra

**N. Bertako sagarrarekin egin dako sagardoa. Hori izango da Euskal Sagardoaren etiketa daramanak bete beharko duen baldintzetako bat. Sagarrondo gehiago landatu beharko dira.**

**U. A.** Eta lehenbailehen. Mugimendu handiak ari dira ematen orain. Dirulaguntzak aktibatu egin dira eta jendea sagastia jartzen hasi da. Plan orokor baten barruan sartzen da hau guzti hau. Lehen sektorea behintzat, martxan jarri du. Hemengo sagarra, kalita-

tezko sagarra behar dugulako sagardoa egiteko.

**N. Sagastien kontrola ere areagotu egingo da, ezta?**

**U. A.** Hala da. Sagasti asko dago hemen, baina profesionalizatutakoa ez hainbeste. Eta hori behar da, dauden sagastia profesionalizatzen joatea. Eta horretaz gain, sagasti berriak jartzea. Hasi dira jada, baina beste 300 bat hektarea gehiago beharko dira oraindik.

**N. Sagardo botilaren prezioa baxua dela diote sagardogile batzuk. Prezio minimo bat ezarri beharko litzatekeela uste dute. Jatorri izendapenaren baitan, landu al duzue gai hau?**

**U. A.** Sagardoaren sektorea duindu egin behar da: itxuran, kalitatean eta prezioan. Bestela ez genuke sektorearen gainontzeko kate guztietan eragiteko ahalmenik izango.

Ez dut uste jatorri deituraren apustua izan behar duenik, sektore osoarena baizik. Denon artean ahalegin handi bat egin beharko dugu produktuari duintasun bat emateko. Zezen horri ere heldu egin beharko diogu.

## Aurrerantzean, kalitatezko bi zigilu:

Hemendik aurrera, kalitate-bermea izango duten bi zigilu publiko eta ofizial egongo dira merkatuan:

■ **Euskal Sagardoa:** Bertako sagarra bakarrik erabiliz egindako sagardoa, eta kalitate-bermea duena. Eusko Label sagardoaren lekukoa hartuko du. Kontseilu Arautzailleak kudeatuko du marka eta bertan sagargile zein sagardogile sektoreak eta administrazioek izango dute ordezkaritza.

■ **Gorenak:** Bertan egin ahan-hemengo sagarrak erabiliz, eta kalitate-bermea duena. Lehen dozena inguru sagardotegiek erabili zezaketen, orain publikoa izango da; hau da, baldintzak betetzen dituzten sagardogile guztiek baliatu ahal izango dute.

Euskal Sagardoa zein Gorenak marken kalitate bermatzeko, HAZI Fundazioak ziurtatuko du prozesua. Botila-lote guzti-guztiek pasa behar dituzte kalitate-kontrolak.

# “Sagardoaren prozesu osoa kontrolatzen da”

AIALDE BERRIN ESAN DIGUTENEZ, SAGASTIEK ERE BALDINTZA BATZUK BETE BEHAR DITUZTE

**NOAUA! Aialde Berrik bat egin du Euskal Sagardoa jatorri izendapenarekin. Nola bizi izan duzue egokitzapena?**

**Salome Portu, Aialde Berri.** Pasa den uda bukaeran edo izan zen. Sagardogile guztiak bilera batera deituak izan ginen. Basque Culinary Centerren egin zen bilera, eta sektoreko jende asko batu ginen. Jatorri izendapenari buruzko azalpenak eman zituzten bilera horretan.

Sagardotegi batzuk Sagardogileen Elkartekoak ziren, besteak Gorenak elkartekoak. Gu ez geunden ez batean ez bestean. Eta instituzioek deialdiak, dirulaguntzak... Dena elkarte horien bidez egiten dute. Bilerara amaitu zenean, gure egoera berdinean ziren beste sei sagardogilerekin batera elkarte bat osatzea erabaki genuen. Urriari izan zen hori. Sagar Uzta du izena gure elkarteak.

**N. Beraz, Sagar Uzta elkarteari esker, izendapenaren prozesua gertutik jarraitu ahal izango duzue.**

**S. P.** Sektorearen eta instituzioen arteko bileretara joan ahal izango gara, eta jatorri izendapenaren baitan Kontseilu Arautzalea planteatzen denean, bertan ordezkari bat izateko aukera izango dugu.

**Sagastiei ere eragiten die N. Euskal Sagardoa izendapena lortzeko, ahalegin handia egin behar izan al duzue?**

**S. P.** Sartzea erabaki genuen, jatorri izenaren harira Eusko Jaurlaritzak baliabideak jarriko dituelako. Eta proba egitea erabaki dugu, zer nolako ahalegina eskatzen digun ikusteko batez ere.

Sagarrondoek, adibidez, homologatuta egon behar dute. Gureak, eta baita gure base-ritarren sagastiek ere. Kontratu bat egin behar duzu Eusko Jaurlaritzarekin. Ezarriak di-



Aialde Berriko Salome Portuk Euskal Sagardoa jatorri izendapena lortzeko eman dituzten urratsak azaldu dizkigu. Usurbilen oraingoz bi dira zigilu hori lortu duten sagardotegiak: Aialde Berri eta Saizar.

## SALOME PORTU

**“Botilaratzeko garaian, analisi kimiko bat egingo zaio sagardoari, eta ondoren dastatze-proba bat pasa beharko du Fraisoron”**

tuzten baldintzak betetzeko konpromiso bat sinatzen duzu, eta ondoren jarraipen bat egiten diete sagastiei.

**N. Beraz, sagastiei ere eragingo zien aldaketa honek.**

**S. P.** Besteak beste, tratamenduen txartelak eskuratu behar dira, landare-osasunerako agiriak. Baserritar batzuk ez zuten, eta hori lortzeko ikastaro bat egin behar izan dute Fraisoron.

Baina prozedura simplea da.

Sagastiaren zaintzan ere, baldintza batzuk bete behar dira. Ze pozo erabili, zer nolako tratamenduak egin zuhaitzei, kimaketak noiz egin... Hori ere araututa dator.

**“Trazabilitate bat zehazten da”**

**N. Sagardotegi bezala, Aialde Berrik ere baldintzarik bete behar izan al du?**

**S. P.** Sagardotegi bezala ere, jatorri izendapenean sartzea eskatu behar duzu. Trazabilitate bat zehazten da: sagarra batzen denetik, botilaratzen den arte. Nongoa den sagarra, noiz jo izan den, muztioa zein kupeletara joan den... Prozesu osoa kontrolatzen da.

**N. Beraz, botilaratzeko prozesuan ere eragingo du.**

**S. P.** Botilaratzeko garaian, analisi kimiko bat egingo zaio sagardoari, eta ondoren dastatze-proba bat pasa beharko du Fraisoron. Jatorri izendapenarekin botilaratu ahal izateko, puntuazio minimo bat jaso behar du. Behin kontrol hori pasata, numerazio bat emango digute, botilari ipintzeko.

Ardoarekin egiten den bezalaxe, Euskal Sagardoa etiketa eramango duten sagardo botilek ere jatorri izendapena eta zenbaki bat eramango dute.

**N. Honek sagardoaren sektorea indartuko duela uste al duzu?**

**S. P.** Bai, baina beste eskaera nagusi bat ere bada, eta horri ez diote oraindik heldu. Prezio minimoarena.

**N. Duindu egingo luke sagardogilearen lana, eta denak baldintza berdinetan aritzeko aukera izango zenukete.**

**S. P.** Hori da. Jatorri izendapenarekin ateratzen den sagardoak, eduki dezala prezio minimo bat. Txakolinaren kasuan, hasieratik horrela ohitu ziren denak, baita bezeroak ere. Guk ordea, badakigu zein prezio-tan saltzen dugun botila, eta gero azoketan edo festetan zein prezio-tan saltzen duten ere bai. Toki batzuetan, 6-7 eurotan, pentsa.

## “Asteburu etako eguerditan dator orain jendea. Horrek salbatu du txotx garaia”

**NOAUA! Hasi da txotx garaia.**

**Salome Portu.** Hasi gara, bai. Espektatibak onak dira aurten ere, baina inoiz ez dakizu nola joango den.

Astean zehar behintzat, asko jaitsi da. Eta asteburu batzuetan, jende asko hurbildu eta

ezin denak atenditu. Hori da okerrena. Ez dago orekarik.

**N. Orain asteburu etako eguerditan egingo duzue lanik gehien.**

**S. P.** Horrek salbatu du txotx garaia. Gezurra dirudi, baina

hala da. Orain dela 20 urte pentsaezina zirudien. Astigarra aldean bat edo bi hasi ziren eguerditan irekitzen, eta denetatik entzun behar izan zuten. Baina gazte zein heldu, jendeak orain eguerdia nahia-ngo du.



## Iruin Sagardotegia

Etorri eta dastatu sagardo berriak

30 Urte baino gehiago Usurbildarrei sagardo hoberenak eskeintzen.

Iruin, beti zugandik gertu.

943.361.229

Petritza bidea 12, Zubieta

**2017ko irteerak** **BIDAIA TALDEAN**  
Irteera Lasarte-Oriatik  
Nooia Bidaiak-ek lagunduta

**AEB-KO MENDEBALDEKO**  
kosta



**MAIATZA**

**BALTIKOKO**  
hiriburuetatik  
kuzeroa



**UZTAILA**

**POLONIA**



**ABUZTUA**

Informazioa eta erreserbak bulegoan.



**NOOIA BIDAIAK**

Hippokrato Etxebidea, 10 - 20100 Lasarte Oria, Gipuzkoa  
T. 943 373 613 | info@nooiabidaiak.com  
www.nooiabidaiak.com



## Sukaldea martxan daukagu!

Orain, gosariez gain:

- PINTXOAK
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK

## Okindegia - Kafetegia



### Ordutegia:

Astehenetik asteazkenera, 06:00 - 21:00 / Ostegunetik igandera, 06:00 - afalosterarte!

Kale Nagusia 10, 20170 Usurbil - 943 37 45 95

# Eiza gabe geratu da Aginaga

Denetarikoa jan edana saldu dute, oinetakoak, jostailuak, denborapasak, aldizkariak, estankoa izan da, taberna, barberua ere izan zuten. Mende beteko historia luzeko saltoki eta aginagarren bilgunea itxi zuten urte amaieran; Usurbildik abiatuta, Aginaga Kaxkoan sartzera goazen lehen bihurgunean kokatua dagoen Eiza.

Hutsune nabarmena utziko du aurrerantzean Aginagako bizimoduan. Baita saltzaileen ere. Saltokikoentzat pauso hau ematea ez baita batere erraza izan. Alderantziz, “oso erabaki gogorra”, NOAUA!ri adierazi diotenez. Bizi osoa eman dute bertan. “Ondo egingo ote dugu ixtearekin?”, galdetu izan diote kezkatuta haien buruari.

## “Lasai egoteko garaia da orain”

Baina erabakia ondo baino hobeto pentsatu ostean hartu dute, erabaki irmoa da, ez du atzera bueltarik. “Orain lasai egoteko garaia da”, diote. Zirkunstantzia ezberdinek ekarri dute dendaren itxiera; batetik, jubilatzekeo garaia heldu zaiela etxekoei. Denda egun batetik bestera hornitzeko baliatzen



“Aitona zenak barberia zuen, sindikatua eramaten zuen aldameneko txabolana”, oroitzen dute. Taberna ere izan zen bolada batean. 100 bat urtez, Aginagarren zerbitzura egon da Eiza.

## AGINAGAKO ERDIGUNEA

**“Hil kanpaiak entzun eta hona deitzen zuten, zein hil den galdetzeko”**

zuten Ergobiko biltegia ere Gasteizera lekuz aldatu omen dute eta horrek ere Eizarako eskaerak gutxienik astebetetzatzeratzea ekarri zuen.

Saltokia bizirik mantentzeko alokatzea izan zitekeen beste alternatiba, “baina berriz ere gastu piloa egin behar” denda egokitzen, tresneria berria erosten, tabakoa saltzeko lizentzia berritzeko dauden mugak ere

hor zeuden, negozioari lotuta segi beharko zuten gainera... “Gaur denda bat ireki behar duenari asko exijitzen zaio”, adierazi digute Eiza etxekoei.

## Denda eta bizitokia, bat eginik

Hau gutxi ez, eta ezin ahaztu, etxetik bereizi beharko litzatekeela denda, sukalde eta egongelari itsatsia izan baitute saltokia. Inork baino hobeto dakite, zer den lan eta bizi, dena eraikin berean egitea. “Dendara sartzen zenak, bazekien zer ari ginen bazkaltzen”, gogorarazi digute.

## Abendutik, itxita

Ehun bat urte izan dituen gu-

nea abendu amaieran itxi zuten. Atzean, belaunaldi bat baino gehiagoren lan itzela egon da. “Aitona zenak barberia zuen, sindikatua eramaten zuen aldameneko txabolana”, oroitzen dute. Taberna zabaldu zuten lehenik. Hura itxi eta urte luzez Aginagako denda bakarra izango zena zabaldu zuten gero.

## Denetarik saltzen zen Eizan

Aipatu moduan, denetarikoa produktua saldu izan dituzte. Baina askoz gehiago izan da Eiza. Enkarguak hartu eta informazio gune garrantzitsua adibidez. “Hil kanpaiak entzun eta hona deitzen zuten, zein hil den galdetzeko”, telefono dei ugari jasotakoak dira beraz. Edo telefono zenbakiren bat falta eta Eizan izango dutelakoan hara deitu edo bertara joandakoak bat baino gehiago dira. Denetik egitea egokitu zaie, baita erizain lanak ere, ez baita ahaztu behar, N-634 ertzean kokatua egon dela saltokia. Errepide honetako bihurgune arriskutsuetako baten erdigunean. “Istripu asko izaten zen kurba honetan. Istripuaren berri emateko hona etortzen ziren deitzera”, oroitzen dute.

# Astelehenetik igandera zabalik izaten zen

Bi aldarri batzen zituen saltokiak: “denetarik salgai” eta “eskatu eta ez badago, ekarriko dizut”. Ez zen erraza behar genuen hori Eizan ez aurkitzea. Eta ez bazegoen, enkarguz egun batetik bestera ekarri ohi zuten.

## Ezin asmatu beti

Batzuetan asmatu izan dute bezeroen nahiekin, bestetan ez hainbeste. Gertatu izan zaie “6-10 kilo limoi ekarri, aste osoan inork eskatu ez eta etxean limonada egin behar



Eskatutakoa ez bazen, egun batetik bestera ekarri ohi zuten enkarguz.

izatea. Edo entsaladarako tomatea ekarri, agortu eta jendeak gehiago eskatzea”, oroitzen dute.

## Lehengo salerosketa eredia jasangarriagoa zen

Garai batean salerosketen eredia jasangarriagoa zen. “Ge-

neroa soltean, ontziratu gabe saltzen genuen. Botilak entregatu egin behar izaten ziren, bestela kobratu egiten ziren. Babarruna, garbantzua, zorroetan saltzen zen”, oroitzen dute.

## “Eskerrak denoi!”

Itxi dute denda, baina Furundarenatarrak ez dute agurtu gabe joan nahi. “Eskerrak eman denei eta zerbait txarra egin badugu ustekabean izan dela, barkatzeko. Eskerrak denoi!”.

# Haurrentzako Lehen Xake Txapelketa

Urtarrilaren 29an, otsailaren 5 eta 12an jokatuko da Usurbilgo Gaztetxean 16:00-19:00 artean, 12 urtetik beherako haurrei zuzenduriko txapelketa, “non xake txapelketa jolastuko den aretoaz gain, tokia badago umeez saskibaloian edota beste edozertan jolas dezaten, jakina baita garuna astintzeaz gain, gorputza ere astindu behar dela”.

Hotz handia egingo balu, Udarrégi Ikastolako jangelan ospatuko da gaztetxeokoei prestatu duten ekimena.

“Txapelketan 20 minutu izango ditu haur bakoitzak bere partida jolasteko, eta 2 edo 3 partida jolastuko dira igandero, parte hartzaile kopuruaren arabera. Bertan antolatzen den lehen txapelketa izango denez, komenigarria da aldeaz aurretik abixatzea xake txapelketen

arauetaz. Isiltasun osoa guztiz beharrezkoa da jolasteko, eta oso zorrotzak dira jokabide zakarrek”, ohartarazi dute. Ekimenean parte hartzeko xake klaseetara joatea ez da ezinbestekoa izango, aldiz “guztiz beharrezkoa xakearen arauak ondo ezagutzeara, sorpresa desatseginak ekidite aldera”. Izen emateko eta informazio gehiago jasotzeko bideok daude: 658 997 828 (Erik)/erikjuez@gmail.com



Urtarrilaren 29an, otsailaren 5 eta 12an jokatuko da Usurbilgo Gaztetxean, arratsaldeko 16:00-19:00 artean.

## “Argazki bat egingo dugu Xuari ongi-etorria opatzeko”

Urbilen Nahi Ditu bilgunetik aditzera eman dutenez, Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga presoan alaba jaio zen hilaren 19an 07:00etan Valentziako erietxean. “Xua du izena eta dena ondo joan da”, adierazi dute ohar bidez.

Gogorra izan da ordea; Sara Majarenas euskal preso donostiarra ere Picassenteko espetxean da. Gogoan izan, duela bi aste bere bi urteko alaba labankadaz larriki zauritu zuen aitak. “Olatz Picassenteko espetxean (Usurbildik 595 kilometrotara), amen moduloan zegoen abenduaren 18tik eta azken egunak oso gogorrak izan dira Sara Majarenasen alaba Izarri gertatutako jazoeira tamalgarriaren ondorioz”, adierazi dute Usurbilen Nahi Ditu bilgunetik.

Salatu dutenez gainera, “Patxi, berriz, Foncalenteko espetxean daukate (Usurbildik 780 kilometrotara) eta oraindik ez daki noiz eramango duten alaba ezagutzera. Gauzak nola diren, bere alaba jaiotako egun berean Patxi oriotarrak bere aitona galdu du”.



Iazko Sagardo Egunean, Olatz zoriontzeko argazkia atera zuten. Orain Olatz eta Patxiaren alaba jaio berria zoriontzeko elkartuko dira. Ostiral honetan, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

### FAMILIA EZIN BATU

**Patxi Uranga  
Foncalenteko espetxean  
daukate eta oraindik ez  
daki noiz eramango duten  
alaba ezagutzera**

### Argazkia ostiraleko elkarretaratzean

Ostiral honetan, urtarrilaren 27an Usurbilen Nahi Ditu bilgunetik, euskal presoan eskubideen aldeko hileroko elkarretaratzea deitu du iluntzeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. Deitzaileek iragarri dutenez, “argazki bat egingo

dugu Xuari ongi-etorria opatzeko”.

Picassenteko espetxea izaten ari da albiste asteotan. Bertan jarraitzen du Sara Majarenas euskal preso donostiarra ere. Duela bi aste, bere bi urteko alaba labankadaz larriki zauritu zuen bere aitak Valentzian. Eraso salatzeke eta bai Sarak baita haurrak bizi duten egoera salatzeke hainbat mobilizazio egin ziren aurreko astean. Matrakak Talde Feministak ere eraso hau salatu zuen. Honez gain, Espetxe Erakundeei helaraziko zaizkien sinadurak biltzen ari dira change.org atarian. Ekimen honen bidez, Sara berehala aske uztea eskatuko da.

### Gutxieneko zerbitzuak Euskotrenen

Amarako eta Arasoko lan-egoitzetako makinarietan lan uzte gehiago iragarri dituzte aste honetarako. Momentuz, astearte eta ostegunerako, hilak 24 eta 26 hurrenez hurren. Hori dela eta, gutxieneko zerbitzuen ordutegia finkatu dute bi egunotarako, 06:25-8:35 artean eta 17:25-19:35 artean, Zumaia-Donostia, eta Lasarte-Oria-Hendaia artean.

### Informazio gehiago:

-Euskotren: euskotren.eus.  
@euskotrenEJGV (Twitter).  
-Lan uzteak egiten ari diren langileen berri:  
Euskotren Amarako Langileak (Facebook).  
@EuskotrenAmara (Twitter).

### Erraustegiaren aurkako manifestazioa

Otsailaren 4rako deitu dute mobilizazioa, oraingoan Hondarrbian. Erraustegiaren Aurkako Mugimendua eta Txingudi Bizirik-ek deitutako manifestazioa, eguerdiko 12:30ean abiatuko da Butroi pasealeku amaieratik, “Errausketarik ez Txingudin, ez Zubietan” aldarripean.



# “Sex-isiltasuna apurtzeko bideak” ikastaroa hasiko da otsailean

**S**exualitatearen gaiari heltzen zaionean, maiz, “gure gaztetxoek jada ez dute gurekin hitz egin nahi. Nola has gaitzke sexualitateaz hitz egiten? Zer helarazi nahi diegu? Nola komunikatu? Zer behar dute?”. Gaion inguruan jardungo du Usurbilgo Sexu Aholkularitza Guneak otsaileko antolatutako “Sex-isiltasuna apurtzeko bideak” ikastaro berria. Parte hartu asmo dutenentzat antolatzaileen ohar interesgarria segidan. “Arreta jarri egunerokoan. Gertaerak, egoera zehatzak, elkarrizketak, galderak jaso ditzakezu eta ikastaroan lantzeko aukera izango dugu”, iragarri dute.

## Aholkularitza jasotzeko aukera

Aholkularitza pertsonalizatua jasotzeko aukera eskainiko duen ikastaroa lau helbururekin antolatu dute: sexualitatea aberasten gaituen balore bat dela ikusteko; seme-alaben, sexu-ezaugarri orokorrak eza-



12-16 urte arteko nerabeen gurasoei zuzendua dago ikastaroa. Argazkia: Amy Treasure.

gutzeko; heziketarako klabeak eskuratzeko (Kontzeptuak, jarrerak eta komunikazioa); hainbat kontzertu eta gai lantzeko (identitate anitzak, desiraren orientazioa, erotika, errespetuzko harremanak, ardurak eta eskubideak, potentzialak versus estereotipoak, pornografia...).

## DBHko ikasleen gurasoei zuzendua

12-16 urte arteko nerabe sexua-

litatearen inguruko ikastaroa DBHko guraso eta arduradunei zuzendua egongo da. Bi saio izango dira, otsailaren 1ean eta 8an, 17:00-19:00 artean Udarrerri Ikastolan. Urtarrilaren 27tik otsailaren 1era bideratu ahalko da inskripzioa. Izen abizenak, telefono zenbakia eta ikastaroaren izena [sexuholku@usurbil.eus](mailto:sexuholku@usurbil.eus) helbidera idatzi edo 697 919 516 telefono zenbakira deitu edo whatsapp mezu bat helarazi.

## Ostiral honetan, EH-ko Mus txapelketako kanporaketa

Gipuzkoako finalerako sailkatzeko saioa ostiral honetan, urtarrilak 27, 22:00etan Aitzaga Elkartearen. Bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira eta ize-na eman, 21:30-22:00 artean.

Euskal Herriko Mus Federazioak antolaturiko txapelketako herri mailako kanporaketan laguntzaile ditu Aitzaga Elkartea, Saizar Sagardotegia (afaria 2 lagunentzat), Aginaga Sagardotegia (afaria 2 lagu-



Aitzaga elkartearen egingo dira partidak. Izen-ematea 21:30ean hasiko da.

nentzat) eta Bruño mariskoak (mariskoa). Informazio gehiago: [ehmus.eus](http://ehmus.eus)

## Otsailaren 2an Kultura Aholku Batzarra

Usurbilgo Udalak Kultura Aholku Batzarra deitu du datorren asterako. Gaiok jorratu asmo dituzte:

- Eguna: otsailak 2 osteguna.
- Ordua: 18:00.
- Tokia: Potxoenea.
- Gai zerrenda:

- 1-Kultura Aholku Batzardea.
- 2-Diru-laguntza deialdi berria.
- 3-Udal materiala erabiltzeko irizpideen lanketa.
- 4- “Zirrara: diru-laguntzen inpaktua neurtzeko metodologia” proiektuaren aurkezpena.
- 5-Berri laburrak.
- 6-Ekarpen eta proposamenak.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.



Dirulaguntza deialdi berriaz hitz egingo da, besteak beste. Otsailaren 2an osteguna, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

## Lan bertikalen inguruko formakuntza

21-29 urte arteko gazteei zuzendutako doako formakuntza saio hauetan izen emateko epea zabalik egongo da urtarrilaren 30era arte. Urtarrilaren 31n hasi eta ekainaren 9ra arte luzatuko da ikastaroa. 12 lagunentzako lekua egongo da, eta Beterri-Buruntzako udalerriko gazteek izango dute lehentasuna.

Inskripzioak Andoaingo Urigain Etxean bideratu beharko dira, astelehenetik ostiralera, 09:00-15:00 artean. Argibide gehiagorako deitu 943 30 42 21 telefono zenbakira edo idatzi txertatumerkatuan@andoain.eus atarira.

## Serbiako errefuxiatuei laguntzeko kanpaina

Serbian diren errefuxiatuei neguko arropak eta mantak eramateko ekimenak jarri dira martxan azken egunotan. Horietako bat Trintxerpe aldean. Diru ekarpenak ere onartzen dituztenez, Munduberri Elkarteak kontu zenbaki bat zabaldu du: ES1530080204283517094821

Tolosan ere, arropa eta diru bilketa egingo da ostiral eta larunbatean San Frantzisko elizako arkupeetan (egunegongo dira bertan). Batutakoa furgonetaz hara eramateko gero.

# Otsailaren 5ean, erabakitze eskubidearen aldeko herri argazkia

**H**errizartu taldeak erabakitze eskubidearen inguruko herri galdeketa egingo du maiatzaren 7an. Giroitze-lanetan dabilta egunotan. Datorren asterako, herri argazki batean parte hartzera deitu dute.

## Selfie kanpaina

“Erabakitze eskubidea eta maiatzak 7ko herri galdeketa babesteko elkartu zure lagun, familia edo lankideekin eta bidali zure selfie 634 44 55 12 zenbakira”.

## Sinadura bilketa

Herrizartu elkarteak frontoi inguruan izango dira igande honetan, eguerdi partean. Dagoeneko 500 sinaduratik gora bildu dituzte.

## Herritarren argazki erraldoia

Otsailaren 5ean igandea, eguerdiko 13:00ean Dema plazan batzeko deia egin dute (eguraldi txarrarekin frontoian).

## Informazio gehiago:

Herrizartu taldekoak ostegunero biltzen dira, 18:30ean Po-txoenean.

- Facebook: Gure Esku Dago Usurbil
- Twitter: @GureEskuDagoU
- usurbilgureeskudago@gmail.com



Argazki bidez, atxikimendu ugari ari dira batzen.

# Bidasoako Kontrabandistak, bigarren etapa

Uztailera arte, Bidasoako Kontrabandisten ibilbidea osatuko du Andatza M.K.T.-k 7 etapetan. Lehenengoa hilaren 15ean egin zuten, Hondarribia eta Arritxulo artekoa. Bigarrenak, Arritxulo eta Arantza lotuko ditu otsailaren 12an.

Goizeko 07:30ean Oiardo Kiroldegian jarri dute biltzeko hitzordua. Joan etorria autobu-

sez egingo denez, aurrez eman beharko da izena. Otsailaren 8a baino lehen 10 euroko ordainketa egin beharko da kontu zenbakiotako batean:

Rural Kutxa: 30080259163005430321  
Kutxabank: 209550690710 6848 9805

■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info

■ Oharrak: “Andatza M.K.T.-k antolatzen dituen irteeretan

parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharreak, edo gurekin harremanetan jarri”.

■ Antolatzailea: Andatza M.K.T.

## NOAUA!ren

### Fotokoleko otarrak

Aurpegi ugari erretratu genituen, ehunetik gora argazki atera genituen San Tomas Festako NOAUA!ren Fotokolean. Parte hartu zenutenon artean bi otar zozketatu genituen. Bat, Zuberoako ikastolak laguntzeko Nafartarrak taldeak urte amaieran bideraturiko elkartasun kanpainako otarra. 12 zenbakia izan zen saritua. Iruditan duzuen Haritz Zubiaur herritarrari egokitu zitzaion. Errigoraren otarra ere zozketatu genuen, baina jabea oraindik ez da agertu. 119 izan zen zenbaki saritua.



Haritz Zubiaurri Zuberoako jakiekin osatutako otarra tokatu zitzaion.

## Eskubaloia, selekzioarako deituak

Urtarrilak 28, larunbata

■ 16:00-18:00 Kadete mutilen Gipuzkoako selekzioaren entrenamendu saioa Donostiako La Salle Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko kide Eneko Furundarena deitu dute hitzordura.

■ 18:00-20:00 Jubenil mutilen Gipuzkoako selekzioaren entrenamendu saioa Donostiako La Salle Kiroldegian. Usurbil K.E.-ko jokalarari Joseba Errazkin, Eneko Iribar eta Julen Nazabal deitu dituzte hitzordua honetara.

# Igande honetan, 'Irisasi BTT Hotzak Akabatzen' proba

**D**agoeneko asko dira igandean ospatuko den mendi bizikletako irteerarako izena eman duten kirolariak. Inskripzioak egiteko epeak zabalik segiko du hilaren 27ra arte, kirolprobak.com atarian.

Federatuek 15 euro ordaindu beharko dute, 18 euro federatu gabeek. 500 lagunentzako lekua egongo da Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban. 26 km eta 36 km inguruko ibilbide bana egiteko aukera izango da urtarrileko azken igandean, goizeko 09:00etan Mikel Laboa plazatik abiatuta.



Federatuek 15 euro ordaindu beharko dute, 18 euro federatu gabeek. Gehienez ere 500 lagunentzako lekua egongo da.

Informazio zehatzagoa jasotzeko, hauek web orri zein email helbideak: [andatzamendizale.info](mailto:andatzamendizale.info) [irisasibt@gmail.com](mailto:irisasibt@gmail.com)

**Amador Granadoren omenez** Irisasi BTT-k eta Usurbilgo Udalak Amador Granados omenduko dute eguerdiko 12:30ak aldera frontoi aldean.

## Pagazpe, III. Euskal Herriko Klub Arteko Nazio Txapelketako finalean

Iazko txapeldunak Usurbilgo Pagazpe elkarteko kideak aurtan ere berriz, 3. Euskal Herriko Klub Arteko Nazio Txapelketako final handirako sailkatu dira. Larunbatean Idiazabalgo Igarondo frontoian Lemoaren aurka jokaturiko finalerdietan 1-2 nagusitu ziren usurbildarrik. Jendetza bildu zen Idiazabaleko hitzorduan, eta giro ederra izan zuten txapelketako bigarren finalerdietan.

**Finala: otsailak 5 igandea**

Tokia: zehazteke.

Taldeak: Pagazpe-Aurrera Tolosa.



Argazkian dira finalera sailkatu diren pilotariak.

**Pala motzeko partida**

Aurreko astean Euskal Herriko pala motzeko partida izan zen Zubietan eta Pagazpeko Clement-Arruti izan ziren garaile Lete-Altunaren aurka.

**Eskuz binaka, 22 urte azpikoak**

Igandean berriz, Euskal Herriko eskuz binakako 22 urtez azpikoan partidan, Pagazpeko Exposito-Aranguren bikotea nagusitu zen 22-2, Uhartre zen aurkaria.

### Futbola Haranen

**Urtarrilak 28, larunbata**

■ 09:30 Alebin mutilak: Udarregi 5A-Urnieta 6B Landaberri B-Udarregi 5B Udarregi 6B-Urnieta 5B

■ 10:30 Infantil neskak:

Usurbil A-Euskalduna

■ 12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Internacional C.D. "B"

■ 16:00 Jubenil mutilak: Usurbil F.T.-Urnieta K.E. "A"

### Eskubaloia Oiardon

**Urtarrilak 28, larunbata**

■ 09:30 Alebin neskak, Buruntzaldea:

Udarregi 6B-Urnieta 6

■ 10:30 Infantil neskak,

Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi A Usurbil-zehazteke

■ 11:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Udarregi A Usurbil

■ 13:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi D Usurbil-Pulpo

■ 15:45 Kadete neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Indupime Basauri

■ 17:30 Jubenil neskak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Indupime Basauri

■ 19:30 Senior neskak, Zilarrezko Ohorezko Maila: Usurbil K.E.-Beti Onak

**Urtarrilak 29, igandea**

■ 10:30 Alebin mutilak, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa: Usurbil K.E.-Zarautz K.E.

■ 11:30 Alebin neskak, Gipuzkoako Errendimenduko Txapelketa: Usurbil K.E.-Zarautz K.E.

**URDAINTZI**  
eraikuntzak  
649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
URDAINTZI@EUSKALNET.NET  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiaurrenea, nº2  
943 36 55 81  
20170 Usurbil

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERJIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com  
600 024 825

**ETXEBIZITZA**

**Salgai**

90 m<sup>2</sup> pisua Nagusi kalean. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. Eguzkitsua, berritua. Informazio gehiago: 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 eta 56) eta garajea 50m<sup>2</sup> eta terraza 9m<sup>2</sup>. Igogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m<sup>2</sup> pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua.

**OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA**

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

**Alokairuan**

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsua batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekiko posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen.

Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

**MOTORRA**

**Salmenta,**

**garajeak**

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Korbeko karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitara salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Ar-

gitsusak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaintzak**

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. [jm.fandino@atalanaocidente.com](mailto:jm.fandino@atalanaocidente.com). 699 760 873.

**LANPOSTUAK**

**Lan eskaerak**

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko,... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jatekx batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperekin egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak em-

teko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailetik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzako lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo hospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluararekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna

**Zorionak Haizea!** Urtarrilaren 27an 7 urte beteko dituzu. Ederki ospatuko dugu maiztia. Muxu pila familia osoaren partez!!

**Zorionak Iban!** 9 urte... Muxu handi bat etxekoan partez!! Ondo pasa!

**Zorionak Josu eta Aitona,** muxu handi bat etxekoan partez!

**Zorionak Inge!** Urtarrilaren 26an, 9 urte beteko dituzu. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoan partez.

**Heriotzak Bittori Salsamendi Azurmendi** 87 urterekin hil zen urtarrilaren 20an, Aginagan

moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketari. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehalan lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehalan lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketari lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketari egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan

egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan

egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

#### BESTELAKOAK

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Lanpara bat topatu nuen Artzabal aldean, haizeak eramanda haize gogorreko egun batean. Zurea bada, deitu 675 712 383.

Belarra mozteko makina elektriko (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoaldan, San Esteban gora

aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen udaltzain amaiaren, ambulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuaren Usurbilgo Udaltzain gora haurtzako botika eta higienarako produktuz betetako laranja koloreko nezeder edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoa galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiardo Kiroledegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztaillaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabilta Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenera ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroledegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumate Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Sabadell/Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskalategia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonika.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 26** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 27** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 28** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 29** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Astelehena 30** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Asteartea 31** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteazkena 01** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

## Urtarrilak 26 - otsailak 05

**Osteguna 02** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Ostirala 03** GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 04** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 05** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ** URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda urtarrila

## 27 ostirala

- Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- EH-ko 9. Mus Txapelketako kanporaketa. 22:00etan Aitzaga Elkartearen.

## 28 larunbata

- Ate irekien eguna Udaregi Ikastolan. 10:30-13:00 artean Udaregi Ikastolako eraikin berriko jangelan.
- Kantu-jira, Mikel Laboa plazatik abiatuko da 19:00etan.

## 29 igandea

- Irisasi BTT 2017 lasterketa. 08:30ean Mikel Laboa plazatik irten, 13:30ean frontoian. 12:30ean omenaldia Amador Granadosi.
- Herritzarturen mahaia, eguerdian frontoian.
- Haurrentzako 1. Xake Txapelketa. 16:00-19:00. Usurbilgo gaztetxean.

## Larunbat honetan, urteko lehen kantu-jira

Hilabeteko azken larunbatean, kantuz girotzen dituzte herriko kaleak. Urte berrian ere, halaxe jarraituko dute. Ohi bezala, arratsaldeko 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

### Entseguak, asteartetan

Abesteko, ikasteko, elkar topo egiteko... Bilgune ederra Kantu Taldeak urteotan osatu duena. Asteartero biltzen dira entseatzeko, 18:30-19:30 artean, Udaregi Ikastolako kantu gelan.

### Kantu liburuxka berria

Tamainaz handiagoa, abesti gehiago hornitua, aurkibide hoberekin, kantei buruzko xehetasunekin. Berrikuntzekin bai baina orain arteko filosofiari eutsiz,



Jaione Eskudero zuzentzen du orain Usurbilgo Kantu Taldea.

halakoxea da Kantu Taldeak, NOAUA! Kultur Elkartearekin eta Usurbilgo Udarekin batera landu eta duela hilabete gutxi eskuragarri jarri duen kantu-liburuxka berria. NOAUA!n dituzue ale gehiago eskuragarri.

## Usurbil 0.0 prozesuko bilera Potxoenean

Ostegun honetan, urtarrilak 26, bilkura irekia antolatu dute Potxoenean, 18:00etatik 20:00etara. "Usurbil 0.0 hondakinen kudeaketa programari eginiko ekarpen, iritzi eta hobekuntzak jaso nahi-ko lituzke Udalak".

## Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal presoen eskubideen aldeko hileroko elkarretaratze berri bat iragarri dute: urtarrilaren 27an ostirala, gaueko 20:00etan elkartuko dira Mikel Laboa plazan, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta.

### Datozenak

## Bizi Kalea jaialdiak gastronomia eta musika lotuko ditu

### Otsailak 4, larunbata:

- 19:00-21:00 Bizi Kalea. Sagardotegi-ko pintxoak 2 eurotan (bakailu tortila, txorizoa eta saiheskia), edaria euro batean.
- 21:00-21:30 Hurbilgoko saltokietan xahutzeko 150 euroko erosketa balearen eta tabernarien opariaren zozketa.

### Kontzertuak frontoian:

- 20:00 The Hastelehen's.
  - 22:30 Huntza. Sarreren salmenta: aurrez 5 eurotan salgai Usurbilgo tabernetan, Hernaniko Garinen, Lasarte-Oriako Ilargin, Orioko Kolon Txikin eta Zarauzko Arranon. Egunean bertan 6 eurotan salgai.
  - 00:00 Zaparra.
- Antolatzailea: Hurbilago Elkarte. Babesleak: Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritzak.



Huntza, Zaparra eta The Hastelen's taldeak arituko dira. Sarrerek tabernetan eskuragarri.



**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA



**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)

EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

# AGINAGAKO Herri Eskola

## Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

• Eskola orduraz kanpoko kirola.

• Goizeko gela (8:00-9:30)

**Izena emateko epea:** **urtarrilaren 30etik**  
**otsailaren 10era**

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

AGINAGA  
HERRI ESKOLA  
Usurbil



**baikara**  
Gipuzkoako Ikasleen  
Gurasoen Federazioa

**AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA**

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044  
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net



# Udarregi

## IKASTOLA

### **Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:**

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren geletan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarrerren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- **KiVa Ikastola gara:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean dugu 2017ko urtarriletik aurrera beste 51 ikastolekin batera.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatzuz bazkaltiarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake.

49 urteko esperientzia Usurbilen.

## **Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)**

### **Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era (biak barne)**

**HAUR HEZKUNTZA:** 3 - 6  
**LEHEN HEZKUNTZA:** 6 - 12  
**DBH:** 12 - 16



**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea. USURBIL

[www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus)